

I.ERANSKINA IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

PORTUGALETE BIRGAITZEKO HIRIGINTZA SOZIJETATEA SAU (SURPOSA), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean entitate betearazle lanak egingo ditu.

Ildo horretatik, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar gorenekiko konpromisoa duela adierazi nahi du, eta bat egiten duela integritate, objetibotasun eta zintzotasun printzipio zorrotzenekin. Hortaz, berarekin erlazionatzen diren eragile guztiek antzeman dezaten bere jardura iruzur eta ustelkeri oren kontrakoa dela.

Bere zerbitzura dauden langileak, langile publikoak diren aldetik, beste beharren artean, interés orokorrak zaintzeko konpromisoa dute, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa zainduz eta betez. Era berean, hurrengo printzipioen arabera jardun beharko dira: objetibotasuna, integritatea, neutraltasuna, erantzunkizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoan aritzeko dedikazioa, gardentasuna, eredu-garritasuna, soiltasun, eskuragarritasun, eraginkortasun, zintzotasun, kultura eta ingurumena sustatzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzea (urriaren 30eko 5/2015 Legea, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutoarena, 52. artikulua).

Politika honen xedea da, erakundearen barnean iruzur jardura guztiak arbuiatzeko kultura sustatzea eta, jardura horiek saihestea eta detektatzea erreztatuko duena, eta kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak sustatzea bultzatuz.

PORTUGALETE BIRGAITZEKO HIRIGINTZA SOZIJETATEA SAUK, entitate betearazle gisan, bere gain hartutako betekizunen artean, iruzurren aurkako neurriak abian jartzea da, Europar Batasuneko araudian ezarritakoaren esparruan eta proportzionaltasun-irizpideen arabera. Honetarako, prozesuaren arduradun eta kudeatzaileen laguntza du, bere erantzunkizun-arloen barruan barne-kontrolerako sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala ezartzen direla bermatzeko.

Iruzurren aurkako neurri proportzionalak eta eraginkorrak abian jarriko ditu. Hauek, aurreko gertakizunetan eta iruzur arriskuaren ebaluazioan oinarrituko dira.

Halaber, barneko jakinarazpen-kanalen bidez antzematen diren irregulartasunak edo iruzur susmoak salatuko ditu, beti, Agintaritza arduradunarekin, Kontrol-agintaritzarekin, Iruzurren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalarekin eta Iruzurren aurkako Europako Bulegoarekin lankidetzan. Txosten guztiak, konfidentzialtasun zorrotzaren gorenarekin eta gai hau arautzen duten arauen arabera tratatuko dira.

Hau da, kontrol-sistema bat ezarri da iruzur jarduerak saihestu eta, ahal den neurrian, antzemateko eta, halakorik izanez gero, haien eragina zuzentzeko.

Portugaleten, 2023ko urtarrilaren 17an.

DIRECTOR-GERENTE

SURPOSA

22710411G JOSE ANTONIO LOPEZ (R: A48192983)

Firmado digitalmente por 22710411G JOSE ANTONIO LOPEZ (R: A48192983)
Nombre de reconocimiento (DN): cn=ES, cn=SOCIEDAD URBANISTICA DE REHABILITACION DE PORTUGALETE SA, 2.5.4.9.20=VAZES: A48192983, 2.5.4.13=Notario/ANHOA/Apellido1/BEITIA/
Apellido2/BERRO/ABAN/NumProtocolo/950/Fecha
Otorgamiento:04-07-2012, c=ES, o=Notario Juragile - Certificado de representante, cn=22710411G JOSE ANTONIO LOPEZ (R: A48192983), givenName=JOSE ANTONIO, sn=LOPEZ ANSAREO, serialNumber=22710411G
Fecha: 2023.01.17 11:24:08 +01'00'

Fdo. José Antonio López Ansareo

